# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-5125

14/1997 LEGEA, urriaren 10ekoa, Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuei 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001 ekitaldietan eman behar dizkieten Ekarpenak Zehazteko Metodologiaren Legea egokitzen duena.

Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadio herritar guztiei:

URRIAREN 10EKO 14/1997 LEGEA, FORU ALDUNDIEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTUEI 1997, 1998, 1999, 2000 ETA 2001 EKITALDIETAN EMAN BEHAR DIZKIETEN EKARPENAK ZEHAZTEKO METODOLOGIAREN LEGEA EGOKITZEN DUENA

ZIOEN ADIERAZPENA

Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22. atalean, zortzigarren puntuan, ezartzen denez, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartuko du baliabideak banatzeko metodologia, eta zehaztuko ditu lurralde historikoek autonomia erkidegoaren aurrekontu-gastuei egin behar dizkieten ekarpenak. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aipaturiko metodologia onartu ondoren, Jaurlaritzak lege-egitasmo batean jaso eta Legebiltzarrari igorriko dio, onartzeko.

Xedapen hori betez, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 1996ko urriaren 7 eta 14ko saioan, 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetarako metodologia erabaki zuen. Ondoren, Eusko Legebiltzarrak urriaren 31ko 6/1996 Legea onartu zuen, non jasotzen baita esandako metodologia.

Onarturiko metodologiaren lehenengo xedapen gehigarrian honela esaten da:

«Ekonomia Itunean sartutako edo ekonomiak edo salbuespenezko beste zirkunstantziaren batek ekar ditzakeen aldaketak direla-eta, banaketa bertikalaren ereduan eta/edo banaketa horizontalaren koefizienteetan eta/edo Bermeen Egokitzapenerako Fondoan funtsezko aldaketak sartu beharra gerta dadinean, Finantza Publikoetarako Euskal Kontseiluak, metodologia eta kalkulu mailako aldaketei buruzko proposamenak egin ahal izango ditu. Proposamenaren gai izan daitezen aldaketak jasoko dituen lege proiektua bidaliko du Jaurlaritzak Legebiltzarrera, honen onarpena eman diezaion».

Abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatu da, Euskadik daukan ahalmena handituz. Hartara, hainbat

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-5125

LEY 14/1997, de 10 de octubre, de adaptación de la Ley de Metodología de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable a los ejercicios 1997, 1998, 1999, 2000 y 2001.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

LEY 14/1997, DE 10 DE OCTUBRE, DE ADAPTACIÓN DE LA LEY DE METODOLOGÍA DE DETERMINACIÓN DE LAS APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO APLICABLE A LOS EJERCICIOS 1997, 1998, 1999, 2000 Y 2001

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 22 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en su apartado octavo, establece que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas aprobará la metodología de distribución de recursos y la determinación de las aportaciones de cada territorio histórico a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma. Asimismo, establece que el Gobierno elevará al Parlamento para su aprobación el correspondiente proyecto de ley que incorporará la metodología antes citada que hubiera aprobado el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

En aplicación de dicho precepto, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en sesión celebrada los días 7 y 14 de octubre de 1996, acordó la metodología aplicable a los ejercicios 1997, 1998, 1999, 2000 y 2001, y posteriormente el Parlamento Vasco aprobó la Ley 6/1996, de 31 de octubre, que incorpora la misma.

La disposición adicional primera de la metodología aprobada contiene la siguiente previsión:

«En el supuesto de que, por cambios introducidos en el Concierto Económico, en el sistema impositivo o derivados de la economía o cualquiera otra circunstancia de carácter excepcional, fuese necesario introducir alteraciones sustantivas en el modelo de distribución vertical y/o en los coeficientes de distribución horizontal y/o en el Fondo de Solidaridad, podrá el Consejo Vasco de Finanzas Públicas proponer las modificaciones metodológicas y de cálculo pertinentes. El Gobierno elevará al Parlamento para su aprobación el correspondiente Proyecto de Ley que incorpore las modificaciones que se propongan».

La Ley 38/1997, de 4 de agosto, ha aprobado la modificación del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, por la que se amplía la

aldaketa egin da zerga-harmonizazioko eta lankidetzako printzipioen erregimenean, egoitzadun ez direnek lorturiko etekinak kargatzen dituzten zergak ordainarazteko erregimenean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen erregimenean eta baltzu-taldeen tributazio-erregimenean; bestalde, Fabrikazio Zerga Bereziak Itunaren erregimenean sartu dira.

Halaber, abuztuaren 4ko 37/1997 Legearen bidez onartu da Euskadiko 1997-2001 bosturtekorako Kupoa zehazteko metodologia, eta hor Ekonomia Itunaren aldaketak isladatu dira.

Ondorioz, eta lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 1997ko irailaren 5eko bileran, metodologia eta kalkuluko egokitzapenak erabaki ditu. Hortaz, besteak beste, tributu itundu berrien kudeaketatik datozen dirusarrerak banaketa-ereduan sartu dira; diru-sarrera berri horietan udalek parte hartzen dutenez, finantzaketa horri dagozkion eskumen berriak hartzen dituzte lurralde historikoek, eta eskumenak jasotzen dituen koefiziente bertikala aldatu da; Kupoaren Bosturteko Legean ezarritako finantza-konpentsazioak ereduan sartu dira; lurralde historikoetako Fabrikazio Zerga Berezien bilketari konpentsazioak eta egokitzapen berriak egozteko irizpideak finkatu dira; eta Fabrikazioko Zerga Berezien bilketaren lurralde-banaketari buruzko datu fidagarririk ez dagoenez gaur egun, foru aldundiek zerga horietako bakoitzeko egiten duten bilketaren egokitzapenak kalkulatzeko formula proposatu da 1997. urterako. Formula hori urtero luzatu ahal izango da, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakiz; formula aldatu nahi izanez gero, ordea, Legebiltzarrak onartu behar du erabakia.

Metodologia horren egokitzapena lege honen eranskin gisa agertzen da, urriaren 31ko 6/1996 Legean ezarritakoari jarraiki.

*Atal bakarra*

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakia onartu da, eta lege honen eranskin gisa agertzen da. Horren bidez urriaren 31ko 6/1996 Legean onartu zen metodologia egokitu da, hau da, foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuei 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetan egin behar dizkieten ekarpenak zehazteko metodologia.

potestad del País Vasco introduciéndose modificaciones en el régimen de los principios de armonización fiscal y de colaboración; en el régimen de exacción de los tributos que gravan los rendimientos obtenidos por no residentes; en el régimen de la normativa aplicable en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas; en el régimen de la tributación de los grupos de sociedades, y se integran en el régimen de concierto los Impuestos Especiales de Fabricación.

Asimismo, la Ley 37/1997, de 4 de agosto, ha aprobado la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 1997-2001, en la que tienen reflejo financiero las modificaciones del Concierto Económico.

Consecuentemente, y en aplicación de lo previsto en la disposición adicional primera anteriormente citada, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en sesión celebrada el día 5 de septiembre de 1997, ha acordado las pertinentes adaptaciones metodológicas y de cálculo. Así, entre otras cuestiones, se incorporan al modelo de distribución los ingresos derivados de la gestión de los nuevos tributos concertados, se modifica el coeficiente vertical para recoger las nuevas competencias de los territorios históricos respecto a la financiación municipal por participación en estos nuevos ingresos, se incorporan al modelo las compensaciones financieras establecidas en la ley quinquenal de cupo; se definen los criterios para la imputación de éstas y de los nuevos ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación a los territorios históricos, y, dada la no disponibilidad en la actualidad de datos fiables sobre la distribución territorial de la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación, se establece para 1997 la fórmula de cálculo de los ajustes a la recaudación de las Diputaciones Forales por cada uno de ellos, fórmula que podrá ser prorrogada anualmente por acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas, o modificada, en cuyo caso el acuerdo se elevará al Parlamento para su aprobación.

La adaptación de dicha metodología, en cumplimiento de lo preceptuado en la Ley 6/1996, de 31 de octubre, se incorpora como anexo a la presente ley.

*Artículo único*

Se aprueba el acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, que se recoge como anexo a la presente ley, por el que se adapta la metodología de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable a los ejercicios 1997, 1998, 1999, 2000 y 2001, aprobada por la Ley 6/1996, de 31 de octubre.

## ERANSKINA

### HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUAREN AKORDIOA

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluko bildutakoek, 1997ko irailaren 5eko bileran, aho batez onartu dute ekarpenak zehazteko metodologiaren egokitzapena, hots, foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuei egin behar dizkieten ekarpenak zehazteko metodologiaren egokitzapena. Egokitzapen horrek 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001 ekitaldietan iraungo du indarrean, eta eragina izango du Ekonomia Itunaren Legearen aldaketan eta Kupoaren Bosturteko Lege berrian. Erabakitzen da, halaber, beste idazketa bat ematea Kupoaren Legearen zenbait atali eta Hamaikagarren Xedapen Gehigarria gehitzea. Hona hemen aldatutako atalak: 1; 2-1; 3; 5; 13; 17; 21-4; Laugarren Xedapen Gehigarria-2; Zazpigarren Xedapen Gehigarria-2; eta I. eta II. eranskinak.

Hauxe da idazketa berria hitzez hitz:

*1. atala.–* Banaketa bertikalaren ereduaren finkapena.

1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetako aurrekontu ekitaldietan zehar, foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen finantzaketa orokorrerako egin behar duten ekarpena, honako eredu honen arabera kalkulatuko da ekitaldi bakoitzean:

– Ekonomia Ituna kudeatzeak dakartzan eta banatzeko diren diru-sarrerak (R).

– Kupoaren metodologiak dakartzan kenketak (D).

– Kenketa berezia (P).

Banatu beharreko diru-baliabideak:
R - (D+P).

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen karga orokorrei eusteko, Foru aldundiek egin beharreko ekarpenak. (Ekarpen Orokorra):

[R- (D+P)]ren %66,25

*2. atala.–* Banaketarako diren diru-sarrerak.

Ekonomia-Ituna kudeatzetik lorturiko hurrengo diru-sarrerak azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 20. atalean ezartzen den banaketari atxikiko zaizkio:

a) Tributu itunduak direla-eta, jardunean dagoen ekonomi ekitaldian bildu daitezen diruak, horiek sortu direneko urtea ez dela kontutan hartuko. BEZak ordezkatu dituen diru-sarrera probintzialak direla-eta, Foru Aldundiek eskuratu dezaten eta 1997ko urtarrilaren 1a baino lehen itundutakoen %6,3koa izango den konpentsazio garbiari dagokion zenbatekoa kendu egingo zaie diru horiei.

## ANEXO

### ACUERDO DEL CONSEJO VASCO DE FINANZAS PÚBLICAS

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en sesión celebrada el 5 de septiembre de 1997, aprueba por unanimidad de los presentes la adaptación de la metodología de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable a los ejercicios 1997, 1998, 1999, 2000 y 2001 a la modificación de la ley de Concierto Económico y a la nueva ley quinquenal de Cupo, conviniendo en la nueva redacción que ha de darse a los artículos uno; dos, apartado uno; tres; cinco; trece; diecisiete; veintiuno, apartado cuatro; Disposición Adicional cuarta, apartado dos; Disposición Adicional séptima, apartado dos; y Anexos I y II; así como en la incorporación a la misma de la Disposición Adicional undécima.

El tenor literal de dicha redacción es el siguiente:

*Artículo 1.–* Determinación del modelo de distribución vertical.

En los ejercicios presupuestarios de 1997, 1998, 1999, 2000 y 2001, la Aportación que las Diputaciones Forales deberán destinar a la financiación general de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma Vasca se calculará en cada uno de los ejercicios con arreglo al modelo siguiente:

– Ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto (R).

– Deducciones procedentes de la metodología del Cupo (D).

– Deducción especial (P).

Recursos a distribuir:
R - (D + P).

Aportaciones de las Diputaciones Forales al sostenimiento de las cargas generales de las instituciones comunes (Aportación General):

66,25% sobre R - (D+P)

*Artículo 2.–* Ingresos sujetos a reparto.

Los ingresos de las Diputaciones Forales derivados de la gestión del Concierto Económico (R) afectos al reparto previsto en el artículo 20 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, son:

a) Los procedentes de la recaudación por tributos concertados durante el ejercicio en curso, independientemente del año de su devengo o generación, minorados en la cantidad correspondiente a la compensación neta a favor de las Diputaciones Forales por ingresos provinciales sustituidos por el IVA que ascenderá al 6,3% del total de aquellos concertados con anterioridad al uno de enero de 1997.

b) Hitzarmenpeko eta zerga-arloko diru sarrerak direla medio, ekonomi ekitaldi bakoitzean zehar foru aldundiek eskuratu ditzaten interes likidoak.

*3. atala.–* Kupoaren metodologiaren ondoriozko kenketak.

1.– Honako kenketa hauek egingo zaizkie Ekonomia Ituna kudeatzetik datozen eta banatzeko diren (R) diru-sarrerei:

a) Kupo likido gisa Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoei dagozkienak eta, minus zeinuaz, Kupoa 1997/2001 bosturtekoan zehazteko metodologian adierazitako finantza-konpentsazioen emaitza.

b) Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoaren kalkuluan konputatuta dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintzaren finantzaketarako den zenbatekoa.

c) Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoaren kalkuluan konputatuta dagoen eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei atxikita dauden transferentziak finantzatzeko den zenbatekoa.

2.– Kupoaren Bitariko Batzordeak 1997/2001 bosturterako Euskal Autonomia Erkidegoaren Kupoa seinalatzeko metodologian erabakitakoa, ekonomi ekitaldi bakoitzari behin-behingoz aplikatuko zaizkion emaitzek osatuko dituzte zenbateko hauek.

3.– Era berean, Estatuari ordaindu beharreko behin betiko likidaziotik eta atal honetan definitzen diren kenketei dagozkien finantza-konpentsazioetatik datozen zenbatekoak, indarrean dagoen ekitaldian egin behar diren kenketen kalkuluan sartuko dira.

*5. atala.–* Banaketa bertikalerako koefizientea.

1997-2001 bosturtekoan indarra izango duen banaketa bertikalerako koefizientea %66,25ean finkatzen da. Hori finkatzeko erabili den metodologia I. eranskinean jasotzen da.

Lege honek indarrean dirauen bitartean, Estatuaren Administrazio Zentralaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean edo Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta foru aldundien artean zerbitzu-transferentziak egiten badira, 10. atalean ezartzen denaren arabera jokatuko da.

*13. atala.–* Kupoaren behin betiko likidazioaren eta finantza-konpentsazioen ondoriozko aldaketak.

Estatuari ordaindu beharreko kupoaren behin betiko likidazioa eta Kupoa 1997/2001 bosturtekoan zehazteko metodologian jasotako finantza-konpentsazioen likidazioa egin ondoren, 3.1. atalean definitzen diren kenketen barruan sartuko dira likidazio horren emaitzak eta 7. atalean

b) Los intereses líquidos devengados a favor de las Diputaciones Forales, por razón de ingresos fiscales concertados durante cada ejercicio.

*Artículo 3.–* Deducciones procedentes de la metodología del Cupo.

1.– A los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto (R) se les practicarán las deducciones siguientes:

a) La cantidad a pagar como Cupo líquido al Estado y con signo negativo el resultado de las Compensaciones financieras previstas en la metodología de señalamiento del Cupo para el quinquenio 1997/2001.

b) La cantidad correspondiente a la financiación de la Policía Autónoma computada en el cálculo del Cupo líquido a pagar al Estado.

c) La cantidad correspondiente a la financiación de los traspasos asociados a entidades gestoras de la Seguridad Social computada en el cálculo del Cupo líquido a pagar al Estado.

2.– Estas cantidades serán las resultantes de la aplicación en cada ejercicio con carácter provisional, de lo estipulado en la metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 1997/2001 acordada en la Comisión Mixta de Cupo.

3.– Asimismo, los importes que se deriven de la liquidación definitiva del Cupo a pagar al Estado y de las Compensaciones financieras correspondientes a las deducciones definidas en el presente artículo, se computarán en el cálculo de dichas deducciones para el ejercicio en curso.

*Artículo 5.–* Coeficiente de distribución vertical.

El coeficiente de distribución vertical, que tendrá vigencia para el quinquenio 1997/2001 se determina en el 66,25%. La metodología seguida para su determinación se recoge en el Anexo I.

En el supuesto de que durante el período de vigencia se produjeran traspasos de servicios entre la Administración Central del Estado y la Comunidad Autónoma, o entre las instituciones comunes y las Diputaciones Forales, se estará a lo dispuesto en el artículo 10.

*Artículo 13.–* Modificaciones derivadas de la liquidación definitiva del Cupo y de las Compensaciones financieras.

Una vez efectuada la liquidación definitiva del Cupo a pagar al Estado y de las Compensaciones financieras previstas en metodología de señalamiento del Cupo para el quinquenio 1997/2001, se procederá a incorporar los resultados de la misma dentro de las deducciones definidas en el

aipatzen diren ekarpen bereziak aldatu egingo dira bidezko izan dadin moduan.

*17. atala.–* Erakundeen arteko beste finantza-fluxu batzuk.

Estatuari ordaindu behar zaion kupo likidoan eta Kupoa 1997/2001 bosturtekoan zehazteko metodologian jasotako finantza-konpentsazioetan lurralde historiko bakoitzari egotzi beharreko zatia, dagokion koefiziente horizontala kupo horri aplikatuz finkatuko da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergak jasango duen egokitzapena eta Fabrikazioko Zerga Bereziek jasango dutena, Ekonomia Itunaren 51. atalean ohartematen dena hain zuzen ere, lurralde historikoka banatzea, lurralde historiko bakoitzaren koefiziente horizontalen heinean egingo da.

Kasu horietan erabili behar diren koefiziente horizontalak, finantza-fluxuak burutzen direneko ekitaldiari dagozkionak izango dira.

*21. atala.–* Ekarpenen likidazioa.

4.– 3.1. atalak aipatzen dituen kenketak, likidazioan kontatu behar direnak hain zuzen, ekitaldian benetan ordaindutako behin-behingo kupotik eta ekitaldian benetan egindako behin-behingo finantza-konpentsazioetatik ateratzen direnak dira.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

2.– Hurrengo idazatian zehazten diren diru-sarreren arabera lor dezatenetik gutxienez %53a euren menpe dituzten toki-erakundeentzat jarri dezatela eskatzen die Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Lurralde Historikoetako foru organuei, eskabidearen zioa, tributu itunduak biltzen parte hartu izana dela. Diruen destino hori, nahiz finantzaketa orokorraren bidez, nahiz inbertsioetarako berariazko planen bidez bete ahal izango da. Hona hemen zehaztasunak:

– Ekonomia-Ituna kudeatzeak dakartzan eta banatzeko diren diru-sarrerak: Ri.

* Tributu itunduetatik bildutakoa, BEZak ordezkatutako diru-sarrera probintzialengatik izandako konpentsazioa kenduz.

* Tributu itunduak direla-eta sorturiko interes likidoak.

– Kupoaren metodologiaren ondoriozko kenketak: Di.

* Estatuarentzako kupo likidoa eta finantza-konpentsazioak.

* Ertzaintzaren finantzaketa.

* Kupo bidezko finantzaketa, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei atxikitako transferentzien trukez.

artículo 3.1, así como a modificar las Aportaciones Específicas a que se refiere el artículo 7, en los términos que proceda.

*Artículo 17.–* Otros flujos financieros entre instituciones.

La imputación a cada Territorio Histórico del Cupo líquido a pagar al Estado y de las Compensaciones financieras previstas en la metodología de señalamiento del Cupo para el quinquenio 1997/2001 se determinará por aplicación sobre el mismo del correspondiente coeficiente horizontal.

Asimismo, la distribución por Territorios Históricos del Ajuste a la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y de los Ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación previstos en el artículo 51 del Concierto Económico se efectuará en proporción a los coeficientes horizontales de cada Territorio.

Los coeficientes horizontales a utilizar en estos casos serán los correspondientes al ejercicio en que se realizan los respectivos flujos financieros.

Artículo 21.– Liquidación de las Aportaciones.

4.– Las deducciones a las que se refiere el artículo 3.1 a computar en la liquidación serán las que se deriven del Cupo provisional efectivamente pagado y de las Compensaciones financieras provisionales efectivamente realizadas durante el ejercicio.

DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA

2.– Igualmente, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas recomienda a los órganos forales de los Territorios Históricos que destinen, a través de la financiación general y en su caso de los planes específicos de inversión, a los Entes Locales de ellos dependientes, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados, como mínimo el 53% del resultado que se obtenga de acuerdo con el siguiente detalle:

– Ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto: Ri.

* Recaudación por tributos concertados menos la compensación por ingresos provinciales sustituidos por el IVA.

* Intereses líquidos por razón de tributos concertados.

– Deducciones procedentes de la metodología del Cupo: Di.

* Cupo líquido al Estado y Compensaciones financieras.

* Financiación Policía Autónoma.

* Financiación vía Cupo por traspasos asociados a entidades gestoras de la Seguridad Social.

* Bosturtekoan zehar Eusko Jaurlaritzari edo lurralde historikoetako foru organuei egindako transferentzia berrien finantzaketa.

– Kenketa berezia: Pi.

– Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunentzako ekarpen orokorra: AGi.

– Elkartasun-fondoa: (Fi).

Diru-baliabide erabilgarriak:
Ri - (Di + Pi) - AGi + Fi.

«i» subindizeak kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzari egiatan dagokiona izango dela adierazten du.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

2.– Halaber, Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren Fabrikazioko Zerga Bereziei dagozkien egokitzapenak egiteko eta Lege honen III. atalburuan aipatzen diren ekarpenen likidazioa egiteko beharrezkoak diren datuei buruzko ziurtagiria jarriko dute foru aldundiek Eusko Jaurlaritzaren esku.

HAMAIKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Foru Aldundiek 1997. ekitaldian Fabrikazioko Zerga Berezi bakoitzetik atera duten benetako bilketaren diru-sarrerak honako kenketa hau eginez doituko dira: kenkizuna: lurralde historikoari ekitaldi horretan dagokion koefiziente horizontala bider Euskal Autonomia Erkidegoko benetako bilketa, aipaturiko zerga-kontzeptu bakoitzeko; kentzailea: benetako bilketa, zerga-kontzeptu beragatik. Egokitzapenen emaitzak aipaturiko ekitaldiko benetako diru-sarreretan kontabilizatuko dituzte foru aldundiek.

Foru aldundietako Fabrikazioko Zerga Berezietan egin beharreko egokitzapenak behin-behingoz kalkulatzearren kasuan-kasuko aurrekontu-ekitaldian, aurreko pasartean aipatu den eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak egin duen diru-sarreren aurrikuspena hartuko da kontuan, foru aldundiek ekitaldiko aurrekontuak egitearen ondorioetarako.

Foru aldundien Fabrikazioko Zerga Berezien egokitzapenak ekitaldian zehar zehazteko, moldatzeko eta epeak finkatzeko, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartzen duen prozedurari begiratuko zaio.

* Financiación por nuevos traspasos en el quinquenio, tanto al Gobierno Vasco como a los órganos forales de los Territorios Históricos.

– Deducciones especiales: Pi.

– Aportación General a las instituciones comunes: AGi.

– Fondo de Solidaridad (Fi).

Recursos disponibles:
Ri - (Di + Pi) - AGi + Fi.

El subíndice i indica que el importe de cada concepto será el efectivamente correspondiente a cada Territorio Histórico.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SÉPTIMA

2.– Asimismo, las Diputaciones Forales pondrán a disposición del Gobierno Vasco la certificación correspondiente de cuantos datos sean precisos para la realización de los Ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación a los que se refiere la Disposición Adicional Undécima y de la liquidación de las aportaciones a que se refiere el Capítulo III de la presente Ley.

DISPOSICIÓN ADICIONAL UNDÉCIMA

1.– Los ingresos del ejercicio 1997 de cada una de las Diputaciones Forales procedentes de la recaudación real por cada uno de los Impuestos Especiales de Fabricación, independientemente del año de su devengo o generación, se ajustarán por la diferencia entre el resultado de aplicar el coeficiente horizontal de su Territorio Histórico para dicho ejercicio a la recaudación real del conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco por cada uno de dichos conceptos tributarios, y su correspondiente recaudación real por el mismo concepto tributario. El resultado de los ajustes correspondientes se contabilizarán por las Diputaciones Forales dentro de los ingresos efectivos de dicho ejercicio.

Para el cálculo previsional de los Ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación de las Diputaciones Forales, a efectuarse durante el ejercicio presupuestario de que se trate, se aplicará la previsión de los ingresos a los que se refiere el párrafo anterior realizada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, a los efectos de formular los presupuestos del ejercicio por parte de las Diputaciones Forales.

La instrumentación a lo largo del ejercicio de los Ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación de las Diputaciones Forales, es decir, su determinación, forma y plazos, se realizará conforme al procedimiento aprobado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

2.– Fabrikazioko Zerga Berezien bilketa eta zerga horien peko produktuen kontsumoa lurralde historikoka jasotzen dituzten datu fidagarriak lortu ondoren, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak egokitzat jotako metodologia eta kalkuluko aldaketak proposatuko ditu banaketa horizontaleko ereduan eta/edo Elkartasun Fondoan egiteko. Jaurlaritzak proposatu diren aldaketak jasotzen dituen lege-egitasmoa igorriko dio Legebiltzarrari onartzeko.

Xedapen Gehigarri honen lehenengo puntuan zehazten den behin-behineko egokitzapena urtero luzatu ahal izango du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, urriaren lehendabiziko hamabostaldian, egokitzat jotzen baldin badu.

2.– Una vez se disponga de datos fiables sobre la distribución por Territorios Históricos de la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación y del consumo de los productos sujetos a dichos impuestos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas propondrá las modificaciones metodológicas y de cálculo pertinentes que fuese necesario introducir en el modelo de distribución horizontal y/o en el Fondo de Solidaridad. El Gobierno elevará al Parlamento para su aprobación el correspondiente Proyecto de Ley que incorpore las modificaciones que se propongan.

Anualmente, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas dentro de la primera quincena del mes de Octubre podrá prorrogar, si así lo estimara oportuno, el ajuste transitorio que se prevé en el punto primero de la presente Disposición Adicional.

## II. ERANSKINA

### BILKETARAKO GAITASUNA: BILKETA KONTZEPTUAK ETA ADIERAZLE EKONOMIKOAK

| KONTZEPTUA | ADIERAZLEA |
|---|---|
| Norberaren lanagatiko atxikipenak | Soldatak eta lansariak |
| PFEZren kuota diferentziala | (1) |
| Kapital atxikipenak, zatikako ordainketak eta baltzuak | Ustiaketaren soberakin garbia |
| BEZ kudeaketa propioa | VAB pm - enpresa FBC-<br>Ez-energiazko esportazioak + Elkarte barneko ez-energiazko erosketak |
| BEZ Egokitzapena | Ekarpen-indizea |
| Garraioen gaineko zerga berezia | Matrikulaturiko auto-kop. |
| Fabrikazio Zerga Bereziak Guztira<br>(Kudeaketa propioa + egokitzapenak) | Ekarpen-indizea |

(1) PFEZren kuota diferentzialari dagokion zenbatekoa, zerga horren bilketa osatzen duen elementu bakoitzari ezarriko zaio proportzioan.

*ANEXO II*

*CAPACIDAD RECAUDATORIA: CONCEPTOS RECAUDATORIOS E INDICADORES ECONÓMICOS*

| *CONCEPTO* | *INDICADOR* |
|---|---|
| *Retenciones Trabajo Personal* | *Sueldos y salarios* |
| *Cuota diferencial IRPF* | *(1)* |
| *Retenciones de Capital, Pagos fraccionados y Sociedades* | *Excedente neto de explotación* |
| *IVA Gestión Propia* | *VAB pm - FBC empresarial-Exportaciones no energéticas + Adquisiciones Intracomunitarias no energéticas* |
| *IVA Ajuste* | *Índice de aportación* |
| *I. Especial sobre medios de transporte* | *N.º turismos matriculados* |
| *Total Impuestos Especiales Fabricación (Gestión Propia + Ajustes)* | *Índice de aportación* |

*(1) El importe correspondiente a la cuota diferencial neta del IRPF se atribuirá proporcionalmente a cada uno de los componentes de la recaudación de dicho impuesto.*

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko urriaren 10ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA
***(Osakidetza)***

**Zk-5126**

2561/1997 ERABAKIA, irailaren 25ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Arantzazuko ospitaleko Anestesiologia eta Bizkortzearen atalburuaren behin betiko izendapena Miguel Marín Paredes jaunaren alde egiten duena.

Zuzendari nagusiak abenduaren 2ko 1153/1996 Erabakiaren bidez dei egin zuen erakunde sanitarioetan hutsik zeuden zerbitzu hierarkizatuetako atalburuentzako lanpostuak betetzeko.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD
***(Servicio vasco de salud)***

**N°-5126**

RESOLUCIÓN 2561/1997, de 25 de septiembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la asignación definitiva de la Jefatura de Sección de Anestesiología y Reanimación del Hospital de Aranzazu en favor de D. Miguel Marín Paredes.

Mediante Resolución 1153/1996, de 2 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron plazas vacantes de Jefe de Sección en los Servicios Jerarquizados de las Instituciones Sanitarias de Osakidetza-Servicio vasco de salud.